



GETARIAN
SALBATOREAK 2026
ABUZTUAREN 5etik 9ra

Jarrai gaitzazu sare sozialetan





Getaiarrak!

Beste urte betez ate joka ditugu herriko jai nagusiak. Ohi bezala, gogotsu abiatuko ditugu Salbatore jaiak, etxeko eta lagunekin festa giroan murgiltzeko irrikaz.

Aurtengoa, ordea, inoiz baino bereziagoa izango da Getariako Arraun Elkartea osatzen dugunontzat; 2026an mende erdia bete da aintzindari batzuk gure elkartea eratu zutenetik, eta Udalak ikurriñaren igoeran parte hartzeko aukera eman digu. Ohore handi bat izango da.

50 urte hauetan jende asko igaro da arraun elkartetik, eta bakoitzak jarri du bere aletxoaren proiektuaren eraikuntzan. Herriko gazteek, kirola egiteko txoko bat aurkitzeaz gain, beren nortasuna eraikitzeko eta lagun artea sendotzeko lanabes bat aurkitu dute bertan.

Nortasuna eta lagunartea ez al dira, halaber, jai herrikoien ezaugarriak? Gozatu egun hauetan, elkar errespetatuz eta zainduz.

AUPA GETARIA!
GORA SALBADORIAKI!
GORA GETAIKO ARRAUN ELKARTEA!



**Aurten ere iritsi zaizkigu
bihotza taupaka jartzen
diguten Salbatore jaiak.
Has dadila jaiak!**

Getaria herri bizia da.

Itsasoaren eta lurraren herria da, baina, batez ere, jendearen herria. Eta, hain zuzen, jendearen auzolanari eta herri-maitasunari esker bihurtu dira Salbatoreak gure altxorrik ederrenetako bat.

Hemen ditugu berriro urteko egunik maiteenak. Kaleak eta plazak pozez beteko zaizkigu, eta herri osoak, elkarrekin, jaiari emango dio bide.


Eskerrik asko auzolanean herria egiten duzuen guztioi.

Elkarteei, boluntarioei, musikariei eta kirolariei, baita Getariari bizirik eusten diozuen herritar guztioi ere. Zuei esker dira Salbatoreak hain berezi eta maiteak.

Salbatoreak guztion jaiak dira. Horregatik, ez diegu lekurik utziko ez indarkeria matxistari, ez jarrera arrazistei eta LGTBIfoboei, ezta inor baztertzen duen ezein jokabideri ere. Elkar zainduz egingo dugu festa.

Eta, nola ez, **euskaraz** kantatu, dantzatu eta ospatuko ditugu aurten ere Salbatoreak, garena egiten gaituen hizkuntza zainduz eta partekatuz.

Jai onak izan ditzagula denok!



Haritz Alberdi, Alkatea.



**GORA
SALBATORE JAIK!**

**GORA
GETARIA!**

**GORA
EUSKAL HERRIA
ASKATUTA!**

Festen atarian

ABUZTUAK 1, larunbata
15:00-20:00 V. HERRI GINKANA.
V. Gymkana Popular.

ABUZTUAK 2, igandea
18:00 ESKUZ BINAKAKO VIII. SALBATORE EMAKUMEEN
PILOTA TXAPELKETAKO FINALA eta
ESKUZ BINAKAKO XXVIII. SALBATORE PILOTA
TXAPELKETAKO KADETEEN FINALA.
Final del Torneo San Salvador de Pelota.

Abuztuak 5, asteazkena.

HAUR ETA GAZTEEN EGUNA

10:00 Gaztetxoen arteko II. IZOZKI TAILERRA, frontoian.
Taller de helados.

11:00 **PAELLA-LEHIAKETAREN HASIERA, txosnagunean.**
Concurso de paellas.

11:30 HAURREN TXUPINAZOA udaletxeko balkoitik.
Chupinazo Infantil.

Jarraian, GETARIAKO BURUHAUNDIAK eta
ZARAUZKO ERRALDOI TXIKIAK.
Cabezudos de Getaria y Gigantes Txikis de Zarautz.

11:45 KITA DEL PARE TXARANGA.
Charanga.

12:00 TXUPINAZOA ETA TXOSNAGUNEAREN IREKIERA
brindisa eta bertsoak.
Chupinazo y apertura de la zona de txosnas.

14:30 GAZTEEN HERRI-BAZKARIA, Harritarten
Jarraian, txosnagunetik abiatuta,
KOADRILEN ARTEKO JOLASAK kalez kale.
Tartean V. KAÑA-KARRERA, Artzapen.
Comida popular, juegos intercuaadrillas y carrera de kañas.

15:30-19:30 HAUR PARKEA, frontoian, plaza eta
Berdura plazan.
Parque Infantil.

19:00 ME VALE MADRE taldearen emanaldi ibiltaria.
Actuación musical itinerante.

22:00 KONTZERTUAK, txosnetan: SOMAK, LUKIEK, EZTANDA.
Conciertos en las txosnas.

22:30 ZESENSUZKOA, plazan eta frontoi inguruan.
Toro de fuego.

23:00 ITZAL erromeria, plazan.
Romería.

00:00 IKURRINAREN IGOERA eta TXUPINAZOA.
« GETARIAKO ARRAUN ELKARTEAK » igoko du bandera,
herriko ABESBATZAK eta MUSIKA BANDAK lagunduta.
Izada de la ikurriña y chupinazo.

Jarraian, ITZAL, plazan.
Romería.

Abuztuak 6, osteguna.

SALBATORE DEUNAREN EGUNA

09:30 Getariako Musika Bandaren DIANA.
Diana.

11:00 MEZA NAGUSIA, Getariako Abesbatzak abestuta.
Misa Mayor.

11:00 HAURRENTZAKO TAILERRAK GUKAREN eskutik.
Talleres para niños.

12:30 ALKATEAREN OHOREZKO AURRESKUA.
Aurresku de honor del alcalde.

12:45 Getariako Musika Bandaren KONTZERTUA, Harritarten.
Concierto de la Banda de Música de Getaria.

17:30 ESKUZ BINAKAKO XXVIII. SALBATORE PILOTA
TXAPELKETAKO JUBENIL eta 23 URTEZ AZPIKOEN FINALAK.
Final de campeonato XXVIII. Salbatore de parejas.

18:00 Markeliñeren “CHEF NATURE” antzerki-ikuskitzuna, plazan.
Teatro de calle en la plaza.

19:30 GOXO TXARANGA.
Charanga.

19:30 IAGO MAGOA, txosnetan.
Mago en las txosnas.

22:30 LEKITOKO DEABRUAK. Lekittoko Deabruak antzerki
taldearen su-ikuskitzuna.
Espectáculo de fuego itinerante de Lekittoko Deabruak.

23:00 Txosnetan, PINTXADA:
GGA ZAZTA, ATLANTIS BROTHERS, MARGARI TA BARBARI.
Música en las txosnas.

Abuztuak 7, ostirala.

SALBATORE BIGARRENA

ELKANOREN LEHORRERATZEA

09:30 DIANA Enbilen Pepitak panderojoleekin.
Diana.

10:00 BIZI JOLAS, euskal jolasak eta tailerrak, frontoian.
BIZI JOLAS, juegos y talleres.

12:30 BERTSO-SAIOA, Harritarten.
Bertsolariak: Andoni Egaña, Haira Aizpurua,
Onintza Enbeita eta Aner Peritz.
Gai-jartzailea: Maite Berriozabal.
Sesión de bertsolaris.

17:00 ELKANOREN LEHORRERATZEA.
Desembarco de Elkano.

20:00 DINBI BANDA BATUKADA.
Batuçada.

22:00 KORRONTZI: “MUNDUA DANTZAN” IKUSKIZUNA, frontoian.
Espectáculo de danza y trikitixa.

22:00 DJak, txosnetan: ASTI, DISCO DEV, JOSEBA REMEMBER.
DJ's en las txosnas.

Abuztuak 8, larunbata.

SALBATORE HIRUGARRENA

Goizean goiz hasita:

Eusko Labeldun TXAHALA ERRETZEN HASTEa, plazan.
*** Arratsaldean pintxoak jan ahal izango dira.

Comienzo del asado de ternera.

09:30 Txistularien DIANA.

Diana de txistularis.

10:30 XII. PATATA TORTILLA TXAPELKETA (14-18 urte).

Concurso de tortilla.

12:00 EUSKO LABEL HEGALUZEA PARRILLAN, sagardoa eta garagardoarekin.

Degustación de bonito Eusko Label a la parrilla con sidra y cerveza km 0.

12:00 JAINEKIN TXARANGA.

Charanga.

13:00 XVII. GOITIBEHERA JAITSIERA.

17ª Bajada de goitiberas.

17:00 BATEL ESTROPADA HERRIKOIA. Getariarren arteko erronka.

Regata popular.

Jarraian, BUZTINTXURIKO ERRALDOI ETA BURUHAUNDIEN KONPARTSAREN ETA GETARIAKO BURUHAUNDIEN KALEJIRA, moilatik abiatuta.

Cabezudos de Getaria y Comparsa de Gigantes y Cabezudos Buztintxuri.

19:00 EUSKO LABEL TXAHAL HARAGI PINTXOAK DASTAKETA, frontoian.

Degustación de ternera Eusko Label.

19:30 GOITIBEHEREEN ETA PATATA TORTILLA TXAPELKETAKO SARI BANAKETA.

Reparto de premios.

20:00 ELEKTROTXUFLA.

Elektrotxaranga.

21:00 GAU IREKIA CRISTOBAL BALENCIAGA MUSEOAN. Erakusketak gaez ikusteko aukera, Isora taldearen zuzeneko musikarekin girotuta. 21:00etatik 00:00etara (azken sarrera, 23:15ean).

Noche de puertas abiertas en el Museo Cristóbal Balenciaga.

22:30 KONTZERTUAK, frontoian: MARTE LASARTE, MERINA GRIS.

Conciertos en el frontón.

*** Arroxaz azaltzen diren ekintzak, Txosna batzordeak antolatutako egitaraua.

Abuztuak 9, igandea.

KOADRILEN EGUNA

10:00 Koadrilen arteko XXVIII. MARMITAKO TXAPELKETA. Concurso de Marmitaco.

12:00 KAIÑA-BI trikitilariak, kalez kale. Trikitilaris.

13:30 Marmitako txapelketako irabazleen aukeratzea, Berdura plazan. Presentación de marmitacos.

14:30 Harritarten, HERRI-BAZKARIA. Comida popular.

Bazkalostean, BENTAZAHARREKO MUTIKO ALAIAK, Harritarten. Sobremesa con canciones populares.

17:00 URETAKO PUZGARRIAK, moilan. Hinchables en el puerto.

17:30 Marmitako txapelketako SARI-BANAKETA. Reparto de premios.

19:30 KANTUJIRA Bentazaharreko Mutiko Alaiak taldearekin. Pasacalles con canciones.

MOZORRO GAUA eta "MOJITO'S NIGHT", txosnetan. Noche de disfraces y mojitada.

22:00 KONTZERTUAK: KUMBIALARI eta SUTARGI erromeria, txosnetan. Concierto y romería.

22:30 ZESENSUZKOEN ENTZIERROA, Artzapetik, plazan eta frontoi inguruan. Encierro de toros de fuego.

23:00 ERROMERIA, OILAR BELTZAK taldearekin, plazan. Romería.

00:00 IKURRINAREN JAITSIERA Getariako Musika Bandak lagunduta, eta FESTEN AMAIERAKO TRAKA. Bajada de la bandera y traca final de las fiestas.

Ondoren, OILAR BELTZAK taldea, plazan. Romería.



San Antonen magalean,
Malkorberen babesean,
Gipuzkoako itsas kaia,
Kantauriko harribitxia (bis):
mahasti ta txakolin
saregile, arrantzale...

Ez dago besterik:
bihotzeko Getari!

Oi, Getari
zahar ta berri,
mende luzetan zehar
gure etxe ta herri.

Lehengo ta oraingo
getariarrok
pozez ta ozen diogu:
gora Getaia!

Getaia! Oi, Getaia!

